

# Elena

## Etxeberria Olano

Astigarraga, 1963

**Baserritarra. Gizarteak ezarritako rola argi izanik, bere nahiak jarraituz eta ikasteko prest agertuz nekazaritza ekologikoaren alde egin duen emakumea.**

**Baserritarra. Mujer que ha optado por la agricultura ecológica, consciente del rol que la sociedad le había asignado, pero siguiendo sus propios deseos y con disposición para aprender.**

**Ikus sintesia bideoan**  
**Ver síntesis en vídeo**



Elena 1963ko azaroaren 7an jaio zen, Astigarragan. Bost anai-arrebetatik laugarren alaba da. Taula baserrian bizi izan da beti, eta baserria izan da familiako mantenu ekonomikoa. Baserriak lan asko du, eta familiako kide guztien laguntza beharrezkoa izaten da. Beraz, txikitatik ikasi du lanean: **«Danak genun eginkizuna txikitatik».**

Hurtzarroan, mojetan, Martuteneko Apostolado Ikastetxean, ikasi zuen. Aldiz, OHO (Oinarriko Hezkuntza Orokorra) Astigarragan amaitu zuen, bertako ikastetxea mutilentzako bakarrik izatetik mixtoa izatera igaro zenean. Institutura Hernanira joan zen, eta jarraian Irakaskuntza ikasketak egin zituen Ategorrietan. Betidanik izan zuen argi ikasi nahi zuela eta oraindik gogoan ditu bere amaren hitzak: **«Ikastea oso ondo dago e, baino alperrik ez zeate ibiliko ikasten. Nota onak ateratzen ez badituzue, lanera».** 20 urterekin Irakaskuntza ikasketak amaitu zituen eta Juana de Arco Hartzaindegi pribatuan jardun zuen lanean bost urtez 3, 4 eta 5 urteko haurrekin.

Orduan, bere ama minbiziarekin gaixotu zen. Etxeko beharrak ikusita, eta bere lan egoerak bultzatuta, lana uztea erabaki zuen aitari baserrian laguntzeko. Izan ere, hartzaindegian ez zegoen oso gustura.

Amaren gaixotasuna zela eta, elikadurari garrantzia handiagoa ematen hasi zitzaion, produktu kimikoek pertsonengan izan zitzaketen eragin negatiboak ezagutu zituen eta nekazaritza ekologikoaren aldeak ere ezagutu zituen: **«Mediku naturistak esan zigun zer ari ginen jaten, eta zabaldu zitzaigun mundu bat: nekazaritza ekologikoa».** Eta beste behin, bere amaren hitzak azaltzen ditu Elenak: **«Zuk nekazaritza hori egin behar dezu».** Hala ere, bere aitak nekazaritza konbentzionala egiten zuen eta erresistentzia zein oztopo handiak jartzen zituen aldaketak abian jartzeko. Hala deskribatzen du alabak: **«Oso diktatoriala, eta ego handiarekin».**

1989an, Elenak 25 urte zituela, bere ama hil egin zen, eta bere bizitza erroz aldatuko zuen erabaki bat hartu zuen: **«Nere bizitzan parentesi bat egin nuen, zeatik ikuste nun nere bizimodua nolakua izango zan, orain nagoen bezala, gainera egingo zidan karga: baserria, ezkongabe, bakarrik. Eta ordun plantetau nun etxean ospa egingo nuela urtebete hemendikan».** Elena Kolonbiara joan zen urte eta erdiz, bere lagun bat bertan bizi baitzen. Hasieran lagun horrekin eta bere bikotearekin bizi izan zen, baina azkenean bertako familia baten etxean bizitzen amaitu zuen. Bere jakinminak bultzatuta, Nekazaritza Fakultatean klaseetara entzule gisa joaten hasi zen, eta bertan behar zuena aurkitu zuen: **«Nekazaritzako iraultzaile bat [...] Dena zan nekazaritza ekologikoa, hau zen bilatzen ari nintzena».** Irakasle horren bitartez, finka eta baserri ugari ezagutu zituen, baina batek arreta berezia eman zion. Alde batetik, nekazaritza biodinamikoa egiten zutelako eta, bestetik, ohikoa ez zen arren: **«Emakumea zan finkaren arduraduna, ez senarra».**

Elenak ez zuen denbora alperrik galdu Kolonbian egon zen bitartean: **«Lanean eta ikasten egiten nitun hiru edo lau egun finka hortan, gero beste egun batzutan unibertsitatara; eta asteburutan juten nintzan asteburu guztia mendi talde batekin mendira».**

Astigarragara bueltatzean, baserrian lanean jarraitu zuen aitarekin batera. Hasieran, bere agindupean, baina apurka, aldaketa txikiak egiten hasi zen Iruñan ezagutu zuen nekazari baten laguntzarekin batera.

2006an eraikitzen hasi ziren errepidearen obren ondorioz (AP-1 eta AP-8), hogeita zazpi mila metro karratu kendu zizkietela eta baratza puska haundi bat gabe geratu zirela adierazten du Elenak: **«Zeharkatu zun terrenoa erditik, terreno zati txiki batekin geratu ginan»**. Gertakari horrek eragin handia izan zuen bere aitarengan. Ondorioz, Elenak erabakiak eta lidergotza hartzeko geroz eta ahalmen gehiago eskuratu zuen.

Bestalde, ahizpa zaharrenari ere minbizia diagnostikatu zioten, eta elikadura osasuntsuago baten bila, nekazaritza ekologikoa egiten hasi zen, jubilatutako berri zen beste ahizparen laguntzarekin: **«Hasi ginen produktu kimikoak ez erabiltzen, hori izan zan lehen pausoa»**. Gerora, 2012an haien aita hil zenean, Elenak hartu zuen baserriaren ardura guztia eta diru zein denbora inbertsio handia egitea erabaki zuen, bere nekazaritza ereduarekin aurrera egiteko. Nekazaritza modeloa aldatu zuen guztiz, soilik nekazaritza ekologikoa egiteko. Hala ere, nekazaritza ekologikoaren ziurtagiria lortzeko prozesu burokratikoak ez zituen burutu.

Lehenago, San Martineko merkatura joaten zen barazkiak saltzera, baina aipatu berri dugun inbertsioak utzitako egoera ekonomiko zailari aurre egiteko asmoz, irtenbide bila jarri zen. Horrela, pandemia garaian Astigarragako Kontxa Etxeberria plazan hasi zen bere produktuak saltzen. Gaur egun, astean hiru egunetan egiten du salmenta eta gainontzeko egunetan baratzean aritzen da lanean. Langile baten laguntza duen arren, denbora asko eskaini behar dio lanari: **«Nik pasatzen det goizeko 6etatik gaueko 12ak arte lanean»**. Izan ere, haurra zenean zortziren artean egiten zuten lana, orain ia dena berak bakarrik egin behar izaten du: **«Baserri batean lana egitea gogorra da, baino oandikan gogorragoa da emakumea izatea eta bakarrik»**, baserriak mantenu handia behar baitu.

Udan etxeko produktua saltzen du, baina nahikoa ez denez, urte osoan tenporadaz kanpoko produktuak ere saltzen ditu: **«Etxeko produktuarekin bakarrik ezinezkoa da aukera ematea ...] Baratzako produktua saltzen degu baina tenporadatik kanpo produktuak ere saltzen ditugu [...] Jendeak badaki, tenporadakoa ez dena ez da etxekoa eta ez da ekologikoa»**.

Bezere fidelak ditu, eta asko estimatzen ditu Elenak. Gainera, askok haien laguntza eskaintzen diote baserrian laguntzeko: **«Guk hori kontutan hartzen degu»**. Gogoko du bezeroak eta ingurukoak baserrira joatea haiei irakasteko. Baratzean lan egiteaz gain, bezeroekin batera zenbait jakintza partekatzeke sare bat eraiki du: **«Saiatzen naiz jendeari ere transmititzen sukaldatzeko gustu hori: gauzak nola egin, "nik hola egiten ditut"... Askok galdetu ere, badago jende oso ona sukaldean etortzen dena erostera eta galdetzen diot»**. Gainera, baratzean landatzen dituen zenbait belarrekin (hala nola, kalendula) eta jendeak ematen dizkion beste batzuekin, ukenduak egiten ere badaki Elenak: **«Jaso degu hemendikan, nere amarengandik belar mundua. Ukenduak egiten ditugu»**. Lehenago, jendeak behar zituela ikusten

zuenean, oparitu egiten zituen. Aldiz, egun, jendeak ikastea nahi du eta baserrira gonbidatzen du interesa duen edonor: **«Emakume batzuk elkartzen gera jarabea egitera».**

Elena 25 urtetatik baratzetik bizi izan denez gero, bere bizitza baratzeari eman diola esan dezakegu. Dagoeneko etorkizunera begira, apurka erretiroan pentsatzen ari da, eta ekonomikoki zailtasun handiak aurreikusten ditu: **«Nik uste det administrazioak zer edo zer egin behar duela».** Bestalde, baserrian lanaren oinordetza nork hartuko duen kezkatzen du: **«Nik orain dakat kezka nola jarraituko degun erreleboa, nola egin [...] Hurrengoa hona etorriko dana, hau hartuko duna, ezin da ni bizi izan naizen bezala bizi [...] Hainbeste ordu lanean ezinezkoa da».**

Hainbeste lan eta kezka artean, bere aisirako tartetxoak lortzen ditu, eta momentu horiez baliatzen da bere jakimina bizirik mantentzeko: **«Beti ikasten, eta saiatzen la mente hacerla flexible eta irekia».** Horrela, bere denbora libre apurra irakurtzen edo zineman igarotzen du: **«Ni elikatu egin behar naiz, ez lanetik bakarrik (aisiari erreferentzia eginez)».**

Elena nació el 7 de noviembre de 1963 en Astigarraga. Es la cuarta hija de cinco hermanos. Ha vivido siempre en el caserío Taula, que ha sido el sustento económico de su familia. El caserío requiere mucho trabajo, por lo que todas las personas que integran la familia tienen que colaborar. Desde pequeña aprendió a trabajar: **«Todos teníamos nuestras tareas desde niños».**

De niña, estudió en el colegio de monjas Apostolado de Martutene. Más tarde, terminó la EGB (Educación General Básica) en Astigarraga, cuando la escuela del lugar pasó de ser solo para chicos a ser mixta. Continuó sus estudios en el instituto de Hernani y, posteriormente, realizó estudios de Magisterio en Ategorrieta. Siempre tuvo claro que quería estudiar y aún recuerda las palabras de su madre: **«"Estudiar está muy bien, pero no vais a estar estudiando en vano. Si no sacáis buenas notas, a trabajar"».** A los 20 años, terminó sus estudios de Magisterio y trabajó durante cinco años en la guardería privada Juana de Arco, con niños de 3, 4 y 5 años.

En ese tiempo, su madre enfermó de cáncer. Al ver las necesidades del hogar y debido a su situación laboral, decidió dejar su trabajo para ayudar a su padre en el caserío, ya que tampoco estaba muy satisfecha en la guardería.

A raíz de la enfermedad de su madre, comenzó a dar más importancia a la alimentación, descubrió los efectos negativos que los productos químicos podían tener en las personas y conoció los beneficios de la agricultura ecológica: **«Un médico naturista nos explicó qué estábamos comiendo y se nos abrió un mundo: la agricultura**

**ecológica».** Y de nuevo, Elena recuerda las palabras de su madre: **«"Tú tienes que hacer esa agricultura"».** Sin embargo, su padre trabajaba en la agricultura convencional y mostraba gran resistencia a los cambios. Así lo describe Elena: **«Era muy dictatorial, y con un gran ego».**

En 1989, cuando Elena tenía 25 años, su madre falleció y ella tomó una decisión que cambiaría su vida: **«Hice un paréntesis en mi vida, porque veía cómo sería mi futuro, sola, soltera, con la carga del caserío. Y en ese momento, me planteé irme de casa por un año».** Elena se fue a Colombia durante año y medio, a donde una amiga suya que vivía allí. Al principio vivió con su amiga y su pareja, pero terminó quedándose en la casa de una familia local. Impulsada por su curiosidad, comenzó a asistir como oyente a clases en la Facultad de Agricultura, donde encontró lo que buscaba: **«Un revolucionario de la agricultura [...] Todo era agricultura ecológica, esto era lo que estaba buscando».** Gracias a este profesor, conoció numerosas fincas y caseríos, pero uno en particular le llamó la atención. Por un lado, practicaban agricultura biodinámica y, por otro, aunque no era común: **«La responsable de la finca era una mujer, no su esposo».**

Elena aprovechó al máximo su tiempo en Colombia: **«Trabajaba y aprendía tres o cuatro días en esa finca, luego otros días iba a la universidad; y los fines de semana salía con un grupo de montaña».**

Al regresar a Astigarraga, continuó trabajando en el caserío junto a su padre. Al principio bajo su dirección, pero poco a poco comenzó a introducir pequeños cambios con la ayuda de un agricultor que había conocido en Iruña.

En 2006, a causa de las obras de construcción de las carreteras (AP-1 y AP-8), les quitaron veintisiete mil metros cuadrados y Elena menciona que perdieron una gran parte de su huerto: **«La carretera atravesó el terreno por la mitad, nos quedamos con una pequeña parte».** Este hecho afectó profundamente a su padre. Como consecuencia, Elena fue adquiriendo cada vez más poder para tomar decisiones y liderazgo.

Además, a su hermana mayor le diagnosticaron cáncer, lo que las llevó a buscar una alimentación más saludable y a empezar a practicar la agricultura ecológica con la ayuda de otra hermana que acababa de jubilarse: **«Comenzamos dejando de usar productos químicos, ese fue el primer paso».** Más adelante, en 2012, tras la muerte de su padre, Elena asumió toda la responsabilidad del caserío y decidió hacer una gran inversión económica y de tiempo para continuar con su modelo de agricultura. Transformó completamente el modelo del caserío para dedicarse únicamente a la agricultura ecológica, aunque no completó los procesos burocráticos necesarios para obtener la certificación de agricultura ecológica.

Antes, vendía sus productos en el mercado de San Martín, pero en busca de soluciones ante la difícil situación económica que dejó la inversión mencionada, comenzó a vender sus productos en la plaza Kontxa Etxeberria de Astigarraga durante la pandemia. Hoy en día, vende tres días a la semana y trabaja en el huerto los demás días. Aunque cuenta con la ayuda de un trabajador, dedica muchas horas al trabajo: **«Yo paso desde las 6 de la mañana hasta las 12 de la noche trabajando»**. De hecho, lo que antes hacían ocho personas cuando era niña, ahora lo hace casi todo sola: **«Trabajar en un caserío es duro, pero aún más duro es ser mujer y estar sola»**, ya que el caserío requiere mucho mantenimiento.

En verano vende productos locales, pero como no es suficiente, durante todo el año también vende productos fuera de temporada: **«Solo con el producto local no es posible ofrecer variedad [...] Vendemos producto del huerto, pero fuera de temporada también vendemos otros productos [...] La gente sabe que lo que no es de temporada no es local ni ecológico»**.

Tiene clientes fieles a los que aprecia mucho y que a menudo le ofrecen ayuda en el caserío: **«Nosotros valoramos eso»**. Le gusta que la clientela y personas del entorno visiten el caserío para enseñarles. Además de trabajar en el huerto, ha creado una red para compartir conocimientos con dicha clientela: **«Intento transmitir también a la gente el gusto por cocinar: cómo hacer las cosas, 'yo las hago así'... También pregunto, porque hay personas muy buenas en la cocina que vienen a comprar y les pregunto»**. Además, con algunas de las hierbas que cultiva en el huerto (como la caléndula) y otras que le dan, Elena también sabe hacer ungüentos: **«Hemos heredado el conocimiento de las hierbas de nuestra madre. Hacemos ungüentos»**. Antes los regalaba cuando veía que alguien los necesitaba, pero ahora quiere que las personas aprendan y las invita al caserío: **«Algunas mujeres nos reunimos para hacer jarabes»**.

Como lleva desde los 25 años viviendo del huerto, podemos decir que Elena ha dedicado su vida al huerto. Actualmente, mirando al futuro, está empezando a pensar en la jubilación y prevé grandes dificultades económicas: **«Creo que la administración debería hacer algo»**. Por otro lado, le preocupa quién asumirá el relevo en el trabajo del caserío: **«Ahora me preocupa cómo vamos a hacer el relevo, cómo lo haremos [...] La persona que venga aquí no podrá vivir como yo he vivido [...] Trabajar tantas horas no es posible»**.

Entre tanto trabajo y preocupaciones, logra encontrar pequeños momentos para su ocio, y aprovecha esos momentos para mantener viva su curiosidad: **«Siempre aprendiendo, y tratando de mantener la mente flexible y abierta»**. Así, dedica su poco tiempo libre a leer o al cine: **«Necesito nutrirme, no solo del trabajo (refiriéndose al ocio)»**.